

KATU-KOLONIEN KUDEAKETA ETIKORAKO PROGRAMA



AURKIBIDEA

- 1.- Sarrera
- 2.- Definizioak
- 3.- Araudia eta legeria
- 4.- Helburuak
- 5.- Jarduera-plana
 - 5.1 Katu-kolonien erregistroa
 - 5.2 Kolonien errolda
 - 5.3 Koloniaren arduradunak eta laguntzaileak
 - 5.4 Kolonien kokapena
 - 5.5 Koloniak egokitzea
 - 5.6 Koloniaren zaintza
 - 5.7 Osasun-irizpideak
 - 5.8 Identifikazioa
 - 5.9 Errabia
 - 5.10 Animalia gaixoak
 - 5.11 Eutanasia
 - 5.12 Katukumeen eta katu otzanen adopzioa.
 - 5.13 Harrapatu, antzutu eta askatu (HAA)
- 6.- Laguntzaileak
- 7.- Udalaren eginkizunak
- 8.- Prestakuntza eta informazioa
- 9.- Finantzaketa
- 10.- Planaren jarraipena eta ebaluazioa

1.- SARRERA

Orioko Udalaren katu-kolonien kudeaketa etikorako plan honek bi behar hauei erantzuten die:

- Kalean, orubeetan eta ageriko erantzulerik gabeko toki publikoetan dauden katuak babesteko eta laguntzeko beharra.
- Martxoaren 28ko 7/2023 Animalien Ongizatearen Legea betetzeko beharra.

Katu-koloniak harrapatu, antzutu eta askatzeko metodoaren bidez (aurrerantzean, HAA metodoa) kudeatzearen helburua hau da: animalia horiek babestea eta haien populazioa behar bezala kontrolatzea, antzutzearen bidez eta osasun-kontrolaren bidez, horretarako beharrezkoak diren baldintzak betetzen badira. Katu-kolonia baimendu eta kontrolatu bat hau da: katu-talde bat, kirurgikoki antzutua, gune publiko edo pribatu batean elkarrekin bizi dena eta osasun-ikuspuntutik zainduta dagoena.

Kaleko katuen populazioek hainbat jatorri izan ditzakete: arduradunek identifikatu gabeko animalia abandonatuak, baliabide berrien bila beste kolonia batzuetatik etorritako katuak, etxeko katu galduak eta kalera ateratzeko ohitura duten etxeko katuek egindako katukumeak. Behin populazioa ezarrita, bere natalitate-tasak gobernatzen du populazio hori hazi edo mantentzen den.

Kaleko katuen koloniak baimendu, erregistratu eta kudeatzeko prozedura honen bidez, kolonien tamaina eta egokitasuna kontrolatu nahi du Orioko Udalak.

Eredu honek aukera ematen du:

- Kontrolatu gabeko kale-katuei lotuta sor daitezkeen arazoak murriztea edo konpontzea.
- Kolonien tamaina egonkortzea, harrera-zentroetan sartzen diren animalien kopurua murriztuz.
- Kontrol-programaren eraginkortasunerako ezinbestekoak diren kolektiboekin lankidetzaz sustatzea.

2.- DEFINIZIOAK

Katu-kolonia: Elkarrekin bizi diren katuen taldea, lotura dutenak beren inguruarekin eta bertan bizirauteko baliabideak dituztenak.

Katu antzutuen kolonia kontrolatua: HAA metodoa aplikatzen zaien katuen populazio baimendua, eta horren bilakaeraren jarraipena eta kontrola. Populazioen tamaina eta hazkunde-tasa murriztea du helburu, katuen ugalkortasunean eraginez.

Katu komunitarioa: Aske bizi den eta jaberik ez duen *Felis Catus* espezieko etxeko animalia da, pertsona batek edo batzuek zaindu dezaketena. Katu horiek ez dira basa-fauna eta gizakiarekin duten sozializazio-maila aldakorra da, nahiz eta, bizirauteko, gizakiaren esku-hartzearen menpe dauden.

Laguntzaile baimendua: Halakotzat joko da, Orioko Udalak baimendua izanik, eta kolonia

egonkortzeko berariazko akordioan deskribatutakoaren arabera, animaliak zaintzeaz, immigrazioaren kontrolaz eta kolonia bideragarri eta mantentzeko beharrezkoak diren beste ekintza batzuez arduratzeko konpromisoa hartzen duena.

Laguntzaile arduraduna: Halakotzat hartuko da, laguntzaile baimenduen kasuan, katu-koloniaren sendotzearekin eta jarraipenarekin lotutako alderdietan laguntzaile gisa jardungo duen kolaboratzailea.

Erakunde laguntzailea: Halakotzat hartuko dira animaliak babesteko elkarteak, baldin eta Orioko Udalarekin elkarlanean badihardute katu-koloniak sendotzeko eta kontrolatzeko. Elkarte horiek Udalaren, Autonomia Erkidegoaren edo Estatuaren erregistroan erregistratuta egon beharko dute.

3.- ARAUDIA ETA LEGERIA

- 7/2023 Legea, animalien eskubideak eta ongizatea babestekoa.
- 9/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Etxeko Animaliak Babestekoa.
- Animaliak eduki eta babesteko udal-ordenantza.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea.

4.- HELBURUAK

Azken helburua komunitateko katuak pixkanaka murriztea da, haien ongizatea bermatuko duen kudeaketa etikoaren bidez. Ezinbesteko zutabeak dira animalien bizitza errespetatu eta babestea, komunitateko katuen ongizatea, herritarrekiko elkarbizitza eta osasun publikoko arazoen prebentzioa.

Berariazko helburu hauek ezartzen dira:

- Katu-koloniak babestea eta kudeatzea, HAA programa abian jarritz, koloniako katu-kopurua pixkanaka gutxitzeko.
- Komunitateko katuen elikadura kontrolatzea.
- Kolonien eta koloniak osatzen dituzten katuen osasun-baldintzak hobetzea.
- Osasun publikoko arazoen prebentzioa.
- Sortu daitezkeen gatazketarako bitartekaritza-mekanismoak ezartzea.
- Abandonuak saihesteko kontzientziazio-kanpainak egitea
- Kolonietan jaiotako kumeen eta katu otzanen adopzioa sustatzea.

5.- JARDUERA-PLANA

5.1 Katu-kolonien erregistroa

Orioko Udalak, justifikazio-txosten teknikoa egin ondoren, katu-koloniak kontrolatu eta

kudeatzeko erregistroa baimenduko du, prozedura honen bidez:

- 1) Katu-kolonia bat erregistratu nahi dutenek erregistro-eskaera aurkeztu beharko dute.
- 2) Orioko Udalak, egindako eskaera aztertuko du, kokapena bisitatuko du, egin beharreko kontsultak egingo ditu eta txostena egingo du, kolonia hori erregistratuko den ala ez adieraziz eta arrazoiak emanez.


5.2 Kolonien errolda

Orioko Udalak espediente bat du erregistratutako kolonia bakoitzeko. Guztiak zentsu baten eta datu-base baten parte dira. Erroldak datu hauek jasoko ditu:

- a) Koloniaren zenbakia.
- b) Kokapena, kokalekuaren ezaugarriak, orube publiko edo pribatua den, eta koloniaren arduradunak egokitzen jotzen dituen bestelako datuak.
- c) Koloniaren arduradunaren eta kolaboratzaileen identifikazioa: izenak, NAN eta harremanetarako datuak.
- d) Katu-kopurua, emeak eta arrak bereizita.
- e) Animalia gaixoen eta antzutuen kopurua.
- f) Koloniaren zaurgarritasuna: arrisku potentzialen edo errealeen presentzia (eremu horretako txakur solteak, trafikoa, auzo-gatazkak, obra posibleak edo bestelakoak).
- g) Katu bakoitzaren argazkia.

Gaur egun, 8 kolonia daude erregistratuta:

1. kolonia: Iturbide 6
2. kolonia: Estropalari 7
3. kolonia: Antxiola 5
4. kolonia: Oa 8
5. kolonia: Baratzeak
6. kolonia: Abaromendi
7. kolonia: San Martin
8. kolonia: Hondartza bidea



5.3 Koloniako arduradunak eta laguntzaileak

Kontrolatutako kolonia bakoitzak zaintzaile arduratsu bat izango du, eta laguntzaile bat edo batzuk ere egon daitezke. Arduradunak egon behar du Udalarekin harremanetan, koloniarekin zerikusia duen edozein gai ebazteko.

Katu-koloniaren arduradun/laguntzaile direla egiaztatzen duen agiria izango dute.

5.4 Kolonien kokapena

Udaleko teknikariek baloratuko dute koloniaren kokapenaren egokitasuna, osasun publikoko eta animalien babeserako irizpide teknikoaren arabera.

Ez da baimenik emango katu-kolonia bat etxebizitza partikularretan erregistratzeko, lagun egiteko animaliekin bizikidetzatza arduratsua izateko baldintzak arautzen dituen Ordenantzan aurreikusitakoarekin bat ez datorrelako.

5.5 Koloniak egokitzea

Planaren barruan, koloniei aukera emango zaie animaliak babestu, zaindu eta maneiatzeko elementuak izateko; besteak beste:

- Seinaleztapena
- Elikadurarako edukiontziak
- Babeslekuak
- Hesiak

Administrazioa arduratuko da koloniak egokitzeaz. Kolonia bakoitzeko katu-kopuruaren neurriko itxitura bat jarriko da, eta, horrekin batera, aterpetu ahal izateko babesleku bat eta janariz eta edariz hornitutako teilatupe bat.

Gune horiek koloniak identifikatzeko plaka batekin seinaleztatuko dira, herritarrentzako informazio, jarraibide edo oinarritzko informazioekin.

Udalak egokitutako gune horien mantenimendua eta garbiketaz katu-kolonien zaintzaileak arduratuko dira.

5.6 Koloniaren zaintza

Kolonietako laguntzaileen betebeharrak izango dira:

- Koloniako katuei ur garbi eta freskoa etengabe ematea.
- Katuei pentsu lehorra ematea, ahalik eta kalitate handienekoa, elikagai organiko edo hezeak saihestuz, kolonia garbi mantentzeko. Elikagai hezeak soilik erabiliko dira animaliak harrapatzeko HAA protokolorako edo beste prozedura batzuetarako: katu gaixoak, katakumeak edo medikazioa behar dutenak.
- Elikagai-hondarrak egunero kendu eta garbituko dira, ahal bada. Nolanahi ere, bide eta espazio publikoak zikintzea saihestu behar da.
- Garbiketa eta desinfekzioa mantentzea. Edantokiak eta jantokiak urarekin eta xaboiarekin garbitu behar dira, erregulariki. Desinfektatzeko agente eraginkor bat erabiliko da; adibidez, etxean erabiltzeko lixiba.
- Katuen egoera behatzea, antzutzearen ondorengo egunetan.
- Gaixo dauden animalien berri ematea, harrapatu ahal izateko albaitaritza-arreta jaso dezaten.

5.7 Osasun-irizpideak

Katu-koloniaren osasun-egoera onari eusteko eta osasun publikorako arriskua gutxitzeko, neurri hauek gomendatzen dira, ekitaldi ekonomiko bakoitzean eskura dagoen aurrekontuaren arabera programatuko direnak:

a) Tratamendu egokiak.

- Barneko eta kanpoko parasitoentzako espektro zabala duen desparasitatzeari. Hala egiteko aukera ematen duten katuei dagokienez, komeni da barne-parasitoen desparasitazioa hiru hilabetez behin egitea, eta kanpo-parasitoena, berriz, hilean behin (bereziki, udaberrian eta udan).
- Antzutzearen unean gaixotasun hauen kontra txertatzea: Herpesvirus felino (FHV-1), Calicivirus felino (FCV) eta Panleucopenia felina (FPV). Hala egiteko aukera ematen duten katuetan, urtebetera berriz txertatzea gomendatzen da, eta, ondoren, 2-3 urtean behin, talde-immunitatea lortzen saiatzeko.

5.8 Identifikazioa

Mikrotxipa duten katuen identifikazioa, antzutzeko garaian. Mikrotxipa Udalaren izenean erregistratuko da. 2025era arte, paperean formalizatutako inprimakien bidez egin dira erregistroak.

2025etik aurrera, Eusko Jaurlaritzako Konpainia Animalien Identifikaziorako Erregistroan (REGIA) erregistratzen hasi dira, lagun egiteko animalientzako pasaportearen bidez.

Maskotak edukitzea, babestea eta kontrolatzea arautzeko, urte hauetan zehar hainbat arau ezarri dira: Animalien Identifikazioa, Animalien Babesa, Txakur Gidariak eta Animaliak Edukitzearen araudia; batez ere, arrisku-animaliena.

Horrekin lotutako legeria guztia arau hauetan dago jasota: 9/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Etxeko Animaliak Babestekoa; 101/2004 Dekretua, ekainaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoa; eta 44/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, aurreko dekretua aldatzekoa. Azken dekretu horrek EAEko Lagun Egiteko Animaliak Identifikatzeko Erregistroaren funtzionamendua eta Txakurren Erregistro Ofizialaren erabilera ere arautzen ditu.

Etxeko txakurren, huroien eta katuen jabeek identifikatu egin behar dituzte, mikrotxip bidez.

Mikrotxiparen ezarpena (lepoko ezkerreko aldean) eta erregistroa albaitariak egingo dute —ofizialek, foralek edo udalekoek, eta pribatuak eta REGIA erroldatutakoek— animalia jaio edo erosi eta bi hilabeteko epean. Era berean, aldakeak —jabeenak, egoitzarenak, galerak eta lapurretak eta abar— REGIAri jakinaraziko zaizkio, aipatutako legean eta dekretuan adierazitako epeetan. Halaber, jabeen betebeharrak ezartzen ditu dekretuak, bai eta arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak eta baldintza bereziak dituzten txakurrak edukitzearekin lotutako guztia ere.

REGIA dauden datuak, sartu diren unetik bertatik, dagokien Udalen eta Foru Aldundien esku egongo dira; horrela, aberea erroldaturik geratuko da dagokion udalerrian. (Ikusi I. eranskina).

5.9 Errabia

Animaliaren Errabiaren Aurkako Plan Nazionalaren protokoloa aplikatuko da.

5.10 Animalia gaixoak

GAIXORIK DAUDEN KATU KOMUNITARIOEN ALBAITARITZARAKO JARDUERA-PROTOKOLOA

Interesatuak: kolonietako laguntzaileak, Udaltzaingoa, albaitari-klinika.

GARRANTZITSUA:

Baimendutako klinikak hauek izango dira:

- **KATU HORIA.** Estropalari kalea, 10, 20810 Orio, Gipuzkoa. 943 11 66 99
- **URRUMA.** Abaromendi, 40, 20810 Orio, Gipuzkoa. 943 01 90 56

Ezin da beste inon zerbitzurik eman.

Klinikaren balioespenaren arabera geratzen da presaren balorazioa.

Premiazkoak ez diren zerbitzu guztiek aldeztatik aurretik Udalaren baimena beharko dute; bestela, animalia arduradunak ordainduko ditu kontsulta eta tratamenduak.

Larri aurkitutako eta arduradun jakinik gabeko katu komunitarioen kasuan, udaltzaingoari jakinarazi beharko zaio aldeztatik aurretik, dagokion gorabehera irekitzeko.

KATU KOLONIA

BIZI-PREMIA
Harrapatze larria
Premiazko eutanasia
Pozoitzea
Txakurren eraso larria
Altueratik erortzea,
larria denean
Beste batzuk

Kliniketara zuzenean:
1.- KATU HORIA
2.- URRUMA

**GAIXOTASUN
KRONIKOA
TRATAMENDUAK
TESTAMENTUAK**

Klinikara ez altxatzea,
udalaren idatzizko
baimena izan arte.

JABERIK GABEKO KATU KOMUNITARIOA / KOLONIA EZAGUNA

BIZI-PREMIA
Harrapatze larria
Premiazko eutanasia
Pozoitzea
Txakurren eraso larria
Altueratik erortzea,
larria denean
Beste batzuk

Udaltzaingoari **GORABEHERA**
irekitzeko aldeztatik aurreko
abisua
Zuzenean albaitaritzakliniketara:
1.- KATU HORIA
2.- URRUMA

5.11 Eutanasia

Animalia baten heriotza eragiteko beharra badago, albaitari profesional eta kolegiatu batek egindako eutanasia bidez izango da, azkar eta minik gabe; betiere sedazioa aplikatuz, konortea berehala galtzeko eta ahalik eta sufrimendu gutxien sortzeko.

5.12 Katakumeen eta katu otzanen adopzioa

KATU ALAI ELKARTEAk kudeatuko du katu edo katukumeen adopzioa.

Helbidea: Abaromendi 38, 2-D 20810 Orio. Gipuzkoa.

5.13 Harrapatu, antzutu, askatu (HAA)

Katu-kolonien kudeaketa etikoa da kaleko katuak harrapatzea, haien osasuna kontrolatzea, antzutzea eta jatorrizko koloniara itzultzea. HAA programak.


Harrapatzeko metodoak

Garraio-kaiola bidez edo tranpa-kaiola bidez. Janari hezea erabiliko da animalia harrapatzeko. Katua barruan dagoenean, kaiola oihal batekin estaltzea gomendatzen da, animaliaren estresa minimizatzeko.

Tranpa-kaiolak modu jarraituan zainduko dira, animalia kale gorrian uztea saihesteko.

Antzutzea

Albaitaritza-zentro elkartuetan egingo da, baldintza egokiak dituztenak prozedura egiteko. Belarrian marka (mozketa) egingo zaio katuari, antzututa dagoela erraz identifikatzeko.



Koloniara itzultzea

Katuak koloniara itzuliko dira, ahal bada harrapaketa leku berean, gehienez 24-72 orduko epean.

Koloniaren zaintzaileek behatu egin beharko dituzte katuak ebakuntzaren ondorengo egunetan, eta Udalaritza edo albaitaritza-zentroari ohartarazi beharko diote kirurgiaren ostean arazoak sortzen badira.

6.- LAGUNTZAILEAK

Koloniak kudeatzeko ezinbestekoa da boluntarioen laguntza eta parte-hartzea.

Interesa duten pertsonak Udalari eskatu beharko diote kolonia-elikatzaileraren izaera, eta Udalak, eskaera baloratu ondoren, dagokion akreditazioa/baimena emango dio.

Boluntarioek konpromisoa hartu beharko dute Udalaren jarraibideak segitzeko elikadurari dagokionez, kolonia-eremuen garbiketari dagokionez, informazioa emateari dagokionez eta gerta daitezkeen gorabeheretan nola jokatu erabakitzeari dagokionez.

Laguntzaileek prestakuntza egiaztatu beharko dute bi gai hauetan, jakintza eta esperientzia duen pertsona/erakunde batek emana:

- Koloniak kudeatzea HAA metodoaren bidez.
- Animalien babesa.

Udalak katuen elikadura egokiari buruzko informazio-hitzaldiak antolatuko ditu langile espezializatuekin.

Udalak txartelak emango ditu laguntzaileak dagokion kolonian baimenduta daudela egiaztatzeko (II. eranskina).

Laguntzaile baimendua aldi baterako kanpoan badago, udal-zerbitzu eskudunari aldezturik jakinarazita, proposatu ahal izango du Udalak ordezkari bati ematea baimena aldi baterako.

7.- UDALAREN EGINKIZUNA

- Katu-kolonia berrien erregistroa kudeatzea (REGIA).
- Laguntzaileak prestatzea.
- Herritarrei informazioa ematea.
- Zaintzaileei laguntzaile-txartela ematea.
- Katuak harrapatu eta kontrolatzeko materiala ematea, beharrezkoa bada.
- HAA proiektuko antzutze-kontratuak egitea. Edozein arrazoi dela-eta, zaintzaileak erabakitzen badu animalia Udalak kontratatu ez duen beste albaitaritza-zentro batera eramatea, eragindako gastu guztiak zaintzailearen kontura izango dira.
- Aldian behingo ikuskapenak egitea katu-koloniei.
- Katu-kolonien jarraipen-erregistroa eguneratuta izatea (REGIA).
- HAA proiektuko zaintzaileen artean bitartekari gisa jardutea.
- Herritarrekin gatazkarik izanez gero, bitartekari gisa jardutea. Edozein kexa idatziz aurkeztuko zaio Udalari, eta Udalak erantzun du.
- Herritarrak kontzientziatzeko kanpainak egitea.

- Elikadura (pentsu lehorra) eta botikak kolonietara eramatea baimendutako albaitarien bidez.
- Programa betetzen dela zaintzea.

Udalak une oro izango du ahalmena katu-kolonien egoera ikuskatzeko, eta baita kudeaketa-irizpideak aldatu edo mantentzeko.

8.- PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA

Janaria banatzen dutenei prestakuntza ematea

Laguntzaileek prestakuntza egiaztatu beharko dute bi gai hauetan, jakintza eta esperientzia duen pertsona/erakunde batek emana:

- Koloniak kudeatzea HAA metodoaren bidez.
- Animalien babesak.

Udalak katuen elikadura egokiari buruzko informazio-hitzaldiak antolatuko ditu langile espezializatuekin.

Udalak txartelak emango ditu laguntzaileak dagokion kolonian baimenduta daudela egiaztatzeko (II. eranskina).

Kolonietako parte-hartzaile guztiek izan beharko dute txartela.

Udaltzaintzako prestakuntza. Legeria eta ordenantzak

Kolonien kudeaketa etikoari buruzko prestakuntza. Orioko katu-kolonien kontrol eta kudeaketa etikorako planaren jarraibideak ezagutzea.

Herritarrei informazioa ematea

Orioko katu-kolonien kontrol eta kudeaketa etikorako planari buruzko dibulgazio-hitzaldiak, komunitateko katuekiko errespetuzko portaera sustatzeko eta boluntarioritza sustatzeko.

9.- FINANTZAKETA

Baliabide propioak

Orioko Udalak finantzatzeko ditu pentsua, elikadura, botikak eta albaitaritzako produktuak eta albaitaritza-gastuak.

10.- PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Zenbait adierazle ezarri dira planaren eraginkortasuna baloratzeko eta beharrezko neurri zuzentzaileak ezartzeko. Prozesu dinamikoa da, beharrezan etengabe egokitzen dena. Bi adierazle nagusiak hauek dira:



- Kolonien erregistroa eta errolda. Hiru hilean behin eguneratuko da.
- Gorabeheren erregistroa.

Adierazle horiek adierazgarriak eta garrantzitsuak izan behar dute, eta eskatutako datuak erraz jasotzeko modukoak izango dira.

I. eranskina: Katu-kolonietako katuen fitxa indibiduala (2025era arte)

ORIOKO KALEKO KATUEN « HARRAPATU ANTZUTU ASKATU (H.A.A./C.E.S) » PROIEKTUA JARDUKETA KLINIKOZ KONTROLATUTAKO KOLONIAREN AGIRIA TRATATUTAKO ALEAREN IDENTIDADE FITXA			
Sarrera data:		Irteera data:	
		Sexua	
		Adina	
		Ilea	
		Arraza	
		Koloniaren kokapena	
OSASUN-KONTROLA ETA ANTZUKETA			
Antzuketa			
Emea		Arra	
Ovario-histerektomia	Ovariektomia	Orquiektomia	
Belarri-markaketa	Ezkerrean(Arra)	Eskuinean(Emea)	
Gaixotasun baten lorratza edo sintomak		Bai	Ez
Lorratzen deskribapena:			
Diagnosia eta tratamendu klinikoa:			
OSASUN-KONTROLAREN ONDORIOAK			
Oharra; patologia sendaezinak edo animalia-kolonia guztia arriskuan jarriko balu, katua eutanasiatua izango litzateke. Erabaki honen zergaitiak bertan zehaztu beharko dira			
Alea aske bizitzeko gai		Ez gai	Eutanasiatua
Arrazonamentua: Ale osasuntsua denez lasai askatu dezakegu			
Albaitari arduradunaren izena eta sinadura			
Albaitaritzak klinikako zigilua			

2025etik aurrera:

LAGUN EGITEKO ANIMALIENTZAKO PASAPORTEA:



EUSKADI
Basque Country

Unión Europea (ESPAÑA)
European Union (SPAIN)

ABEREENTZAKO
PASAPORTEA
PASAPORTE PARA ANIMALES
DE COMPAÑIA
PET PASSPORT

ES 150269111

I. JABEA / PROPIETARIO/A / OWNER

1. Izena / Nombre / Name:
 Abizenak / Apellidos / Surname:
 Helbidea / Dirección / Address:
 Posta Kodea / Código postal / Post-Code:
 Herria / Localidad / City:
 Estetua / País / Country:
 Telefono Zkia / N° Tel. / Telephone Number:
 Sinadura / Firma / Signature:

2. Izena / Nombre / Name:
 Abizenak / Apellidos / Surname:
 Helbidea / Dirección / Address:
 Posta Kodea / Código postal / Post-Code:
 Herria / Localidad / City:
 Estetua / País / Country:
 Telefono Zkia / N° Tel. / Telephone Number:
 Sinadura / Firma / Signature:

I. JABEA / PROPIETARIO/A / OWNER

3. Izena / Nombre / Name:
 Abizenak / Apellidos / Surname:
 Helbidea / Dirección / Address:
 Posta Kodea / Código postal / Post-Code:
 Herria / Localidad / City:
 Estetua / País / Country:
 Telefono Zkia / N° Tel. / Telephone Number:
 Sinadura / Firma / Signature:

4. Izena / Nombre / Name:
 Abizenak / Apellidos / Surname:
 Helbidea / Dirección / Address:
 Posta Kodea / Código postal / Post-Code:
 Herria / Localidad / City:
 Estetua / País / Country:
 Telefono Zkia / N° Tel. / Telephone Number:
 Sinadura / Firma / Signature:

IV. PASAPORTEAREN EMANKIZUNA
IV. EXPEDICIÓN DEL PASAPORTE
IV. ISSUING OF THE PASSPORT

Atxialari baimendua / Izena / Nombre del veterinario autorizado /
 Name of the authorised veterinarian:

Posta-helbidea / Dirección postal / Address:

Posta Kodea / Código postal / Post-code:

Herria / Localidad / City:

Herrialdea / País / Country:

Tel. Zkia / N° de telefono / Tel. Number:

Posta elektronikoa / Correo electrónico / E-mail address:

Emankizun-data / Fecha de expedición / Date of issuing:

ES 150269111

II. ABEREAREN DESKRIBAPENA
II. DESCRIPCIÓN DEL ANIMAL
II. DESCRIPTION OF ANIMAL

1. Izena / Nombre / Name*
 2. Espeziea / Especie / Species:
 3. Arraza / Raza / Breed*:
 4. Sexua / Sexo / Sex:
 5. Jaiotze-data / Fecha de nacimiento / Date of Birth*:
 6. Kolorea / Color / Colour:
 7. Edozein ezaugarri nabarmen edo antzemangarri /
 Any notable or discernable features or characteristics:

III. ANIMALIAREN IDENTIFIKAZIOA
III. IDENTIFICACIÓN DEL ANIMAL
III. MARKING OF ANIMAL

1. Mikrotiparen alfazenbaki-kodea
 Código alfanumérico del tatuaje:
 978142000881209

2. Mikrotipa lezioaren data / Fecha de la aplicación de la lectura del transpondedor
 Date of application of reading of the transponder

3. Mikrotiparen kokapena
 Ubicación del transpondedor
 Location of the transponder

4. Tatuajearen alfazenbaki-kodea
 Código alfanumérico del tatuaje:
 Tatuaje alfanumérico code

5. Tatuaje lezioaren / Irakurtzearen data
 Fecha de la aplicación de la lectura del tatuaje
 Date of application of reading of the tattoo

6. Tatuajearen kokapena / Ubicación del tatuaje / Location of the tattoo

Animalaren identifikazioa egiaztatzen da, pasaporte horretan datu gehiago sartu aurretik.
 Se verificará el marcado del animal antes de introducir más datos en este pasaporte.
 The marking must be verified before any new entry is made on the passport.

* Ezarabatu egokia ez denean / Delete as necessary

ES 150269111

II. eranskina: Katu-koloniei janaria emateko pertsonen eskaera.

JANARI-EMAILE BAIMENDUAREN EGIAZTAGIRIA	
Izena	
Abizenak	
NAN	
Helbidea	
Telefonia	
Helbide elektronikoa	
Janari-emaile taldea	
Kolonia zk.	



ORIO
marea bizian

III. eranskina: Kontrolatutako koloniak identifikatzea.



UDALAK BAIMENDUTAKO
KATU-GUNEA

Albaiteroek antzutatutako katuen gunea,
boluntarioen bidez zaindua eta kontrolatua

GALARAZITA DAGO:

- Katuak hemen abandonatzea
- Katuak molestatzea
- Katuei janaria kentzea
- Katuei janaria ematea

COLONIA FELINA

AUTORIZADA POR EL AYUNTAMIENTO

Colonia felina esterilizada,
controlada por veterinarios

PROHIBIDO

Abandonar gatos
Molestar a los gatos
Darles de comer
Quitarles la comida